

## RISEDRONATOA

**ACTONEL®**  
Aventis Pharma SA.

30 mg.ko 28 konprimitu  
Prezioa: 40.003 pta (240,42 €).

5 mg.ko 28 konprimitu.  
Prezioa: 6.978 pta (41,94€).



▼ EZ DAKAR EZER BERRIRIK

### Osteoporosia

#### TRATAMENDUAREN KOSTUA URTEKO

Alendronatoa 10 mg/eguneko / 87.600 Pta (525,6€)  
Etidronatoa 400mg/eguneko / 3.285 Pta (18,25 €)  
Risedronatoa 5mg/eguneko / 90.885 Pta (547,5€)

#### Paget-gaixotasuna

#### TRATAMENDUAREN KOSTUA ZIKLOKO

Etidronatoa (350-700 mg/eguneko \* 6 hilabete)  
8.280-16.560 Pta (50,4-100,8€)

Risedronatoa (30 mg/eguneko \* 2 hilabete)  
86.984 Pta (522,78€)

Tiludronatoa (400 mg/eguneko \* 3 hilabete)  
159.985 Pta (961,53€)

#### INDIKAZIOAK

Paget-gaixotasunaren tratamendurako.  
Menopausia-ondoko osteoporosiaren eta kortikosteroideek eragindako osteoporosiaren prebentzio eta tratamendurako.

#### KOMENTARIOAK

Risedronatoa beste bifosfonato berri bat da. Batetik, osteoklastoen aktibitatea inhibitzen du; bestetik, hezurretako interkanbioa eta resorzioa gutxitzen ditu.

Entsegu kliniko batek erakutsi duenez, risedronatoa etidronatoa baino efikazagoa da Paget-gaixotasunerako, fosfatasa alkalinen maila neurri normalean mantenduz.

Risedronatoa zera erakutsi du soilik: osteoporosia eta alde zuzeneko orno-hausturak dituzten 65 urtetik gorako emakumeentzat, plazebo baino efikazago dela, ornoen eta ez-ornoen hausturen jaitsieran. Aitzitik, aurretiko orno-hausturarik ez zuten emakumeentzat, ez du efikaziarik frogatu.

Hiru urteko tratamenduaren bitartean aldaka-hausturarik gerta ez dadin, aurretiko orno-haustura izan duten 29 emakume tratatu beharko litzateke.

Ahozko kortikosteroideekin tratatzen ari diren (18 urtetik gorako) pazienteetan ere, risedronatoak orno-hausturak gutxitzen ditu.

Urdaileko ultzera endoskopikoen intzidentziari dagokionez, emaitzak kontraesankorrak dira. Entsegu kliniko batek erakutsi duenez, risedronatoak eta alendronatoak antzeko efektuak azaltzen dituzte; aitzitik, beste entsegu batek azaltzen du, risedronatoarekin alendronatoarekin baino ultzera- intzidentzia gutxiagoa dela.

Paget-gaixotasunerako dosi gomendagarria 30 mg/eguneko da, eta osteoporosia prebenitu eta tratatzeko 5 mg/eguneko da. Gerta litekeen bigarren mailako ondorio gastrointestinalen motagatik, garrantzizkoa da medikuak pazientei irakastea nola administratu behar den farmakoa.

Osteoporosiaren prebentzio eta tratamenduan, ez dago risedronato-entsegu konparatiborik alendronatoarekin eta etidronatoarekin, baina zeharkako konparazioz, risedronatoak etidronatoa baino hobea dela ematen du; izan ere, etidronatoak zera erakutsi du, orno-hausturen intzidentzia gutxitu egiten duela, ez, ostera, aldaka-hausturen intzidentzia. Bestalde, risedronatoak eta alendronatoak antzeko efikazia erakusten dute bai menopausia ondoko osteoporosiaren tratamenduan (orno- eta aldaka-hausturaren intzidentzian erreduzioa) eta baita glukokortikoideek eragindako osteoporosiaren tratamenduan ere. Efektu gastrointestinal kaltegarri dagokienez, ez da argi geratzen risedronatoa alendronatoa baino jasagarriago den ala ez. Hala ere, adierazi beharrekoa da bifosfonatoen onura garrantzi handikoa dela Paget gaixotasunaren eta osteoporosiaren tratamenduan, eta risedronatoa beste bifosfonatoekin (alendronato, etidronato eta tiludronatoarekin) konparatzen duten entsegu kliniko gehiago egin behar direla, jakiteko zein den risedronatoari terapeutikan dagokion tokia.



▼ OSO INTERESGARRIA



▼ INTERESGARRIA



▼ ERABILGARRIA NOIZEAN BEHIN



▼ EZ DAKAR EZER BERRIRIK



▼ ESPERIENTZIA KLINIKO GUTXIEGIA



Osakidetza  
Servicio vasco de salud

Sendagai hauei buruz xehetasun gehiago jakiteko edo zerbait argitzeko harremanetan jarri MIEZ-ekin: e-mail: [cevime-san@ej-gv.es](mailto:cevime-san@ej-gv.es) Tel. 945 01 92 66

Emandako informazioa orain duguna da eta etorkizunean gerta daitezkeen aurrerapen zientifikoen arabera aldagarria da.



EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO

OSASUN SAILA  
DEPARTAMENTO DE SANIDAD